

**2007ko AZAROAREN 15eko UDALBATZARRA**  
**PLENO DE 15 DE NOVIEMBRE DE 2007**

**BERTARATUAK / ASISTEN:**

**ALKATEA / ALCALDE: JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:**

**AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU, ALFREDO GOYENECHÉ INÉS, RAFAEL ECHEVERRÍA PERURENA, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, M<sup>a</sup> SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.**

**IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:**

Inor ez.

**Tokia: BERAko Herriko Etxea.**

**Eguna: 2007-11-15**

**Ordua: 20:50**

**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA.

Día: 15-11-2007

Hora: 20:50

Tipo sesión: ordinaria, 1<sup>a</sup> convocatoria.

**TRATATZEKO GAIK:**

**ASUNTOS A TRATAR:**

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

**1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-**

**2007ko urriaren 20an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DA.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 20 de octubre de 2007, por unanimidad SE APRUEBA.

**2.- 2007ko UDAL LANGILEEN PLANTILLA ORGANIKOA ALDATZEA.-**

**2.- MODIFICACIÓN PLANTILLA ORGÁNICA PERSONAL MUNICIPAL, AÑO 2007.-**

**2007ko martxoaren 14an eginiko Udalbatzan Udalak Langileen Plantilla Organikoa**

El Ayuntamiento en el Pleno celebrado el 14 de marzo de 2007 aprobó la Plantilla Orgánica del Personal.

onetsi zuen.

**2006ko otsailaren 1ean Udalak administrari bat kontratatu zuen zerbitzuen arrazoiengatik eta aurrean kontratua luzatu zuen lanpostu hori behin betiko bete arte.**

**Kontuan hartuz, lanpostu hau onartutako Udal Langileen Plantilla Organikoan ez dela agertzen, plantilla hau aldatu behar da lanpostua behin betirako bete baino lehen.**

**Izanik, 18/1986ko abenduaren 15-eko Foru Legearen 15.2 artikulua zera ohartarazten duela:**

**"Administrazio bakoitzak, beraiei dagozkien eskumenen esparruan, zehaztuko du zein lanpostutarako izanen den nahitaezkoa euskara jakitea, eta gainerakoentzat, kontutan hartzeko merezimendutzat hartuko da besteren artean".**

**Izanik, 29/2003 Foru Dekretuaren 18.1 artikulua honako hau xedatzen duela:**

**"Nafarroako Administrazio Publikoek, ebazpen arrazoituaren bidez, beren plantilla organikoetan adieraziko dute euskaraz jakitea zer lanpostu eskuratzeko izanen den nahitaezkoa, zereginen, Foru Dekretu honetako zehaztapenen eta eskariaren arabera; lanpostu horien zereginei dagokien jakite maila adierazi beharko da."**

**Lehen aipatutako artikuluei jarraikiz.**

**Aho batez, ERABAKI DA:**

**1) 2007. urterako Udal Langileen Plantilla Organikoaren aldaketa hasiera batez onetsia.**

**2) Udalak 2007ko Langileen Plantilla Organikoan onartu zuen moduan lanpostu honetan ere euskara jakitea nahitaezkoa izanen dela xedatzea espedientean eta erabaki honetan adierazten den jakite mailaren**

Con fecha 1 de febrero de 2007 el Ayuntamiento contrató a una administrativa por razones del servicio y en el año actual se prorrogó dicho contrato hasta que se cubriera dicho puesto de trabajo de forma definitiva.

Teniendo en cuenta que este puesto de trabajo no consta en la Plantilla Orgánica de Personal aprobada, deberá modificarse dicha plantilla antes de su provisión definitiva.

Siendo que el artículo 15.2 de la Ley Foral 18/1986, de 15 de diciembre, del Vasconce indica que "en el ámbito de sus respectivas competencias, cada Administración especificará las plazas para las que sea preceptivo el conocimiento del vasconce y, para las demás, se considerará como mérito cualificado, entre otros".

Siendo que el artículo 18.1 del Decreto Foral 29/2003 establece que "Las Administraciones Públicas de Navarra, mediante resolución motivada, indicarán en sus respectivas plantillas orgánicas los puestos de trabajo para los que el conocimiento del vasconce sea preceptivo para poder acceder a los mismos en función del contenido competencial, de las determinaciones de este Decreto Foral y de la demanda, expresando el grado de dominio que corresponda al contenido de dichos puestos de trabajo."

De acuerdo con lo establecido en los artículos citados anteriormente.

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la modificación de la Plantilla Orgánica del Personal del Ayuntamiento para el año 2007.

2) Establecer que tal como se aprobó en la Plantilla Orgánica de Personal de 2007 para acceder a este puesto de trabajo el conocimiento del euskera será preceptivo según se especifica en el expediente y en este acuerdo.

arabera.

**3) Aipatu plantillaren aldaketa, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udal Iragarki Taulan aurrez iragarrita, hamabost laneguneko epean jendaurrean egotea herritarrek eta interesatuek azter dezaten eta nahi dituzten erreklamazioak jar ditzaten.**

**4) Aurreko puntuan aipatzen den jendaurreko epea iragan ondoren, erreklamaziorik ez balego, plantillaren aldaketa behin-betikoz onetsizat hartuko dela ohartaraztea.**

### **3.- EAE/ANV-k AURKEZTUTAKO MOZIOA.-**

**Gai hau eztabaidatu baino lehen, Jon Abri-lek Aralar, EA eta EAJ-PNV-ren izenean mozio honi emendakina aurkeztu behar diotela iragarri du eta momentuan entregatu du.**

**Alkateak EAE-ANV-k aurkeztutako mozioa non, beste gauzen artean, Seguran eginiko atxiloketak eta demokraziarik ez dagoela salatzen dituen, irakurri du.**

**Segidan Jon Abri-lek, lehen aipatu diren alderdien izenean, aurkeztutako emendakina irakurri du.**

**Geroztik, honako adierazpen egin dira:**

**- Ramon Elgorriagak: Haiek bere mozioa aurkeztu dute eta zenbat gauzetan ados egon daitezken emendakinarekin baina nahi dute haiek aurkeztu dutena tratatu eta bozkatu eta emendakina beste mozioa aparte bezala.**

3) Exponer esta modificación de la plantilla en Secretaría por período de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios, a fin de que los vecinos/as o interesados/as puedan examinar el expediente y formular las reclamaciones que estimen pertinentes.

4) Indicar que, si no se formularen reclamaciones, la modificación de la plantilla se entenderá aprobada definitivamente, una vez transcurrido el periodo de exposición pública señalado en el punto anterior.

### **3.- MOCIÓN PRESENTADA POR EAE-ANV.-**

Antes de la deliberación de este asunto Jon Abril, en nombre de EA, EAJ-PNV y Aralar, anuncia la presentación de una enmienda que entrega en este momento.

El Alcalde lee la moción presentada por EAE-ANV en la que, entre otras cuestiones, denuncian las detenciones llevadas a cabo en Segura y la inexistencia de democracia.

Seguidamente, Jon Abril, en nombre de los partidos antes señalados, lee la enmienda presentada.

Posteriormente, se realizan las siguientes manifestaciones:

- Ramón Elgorriaga: Ellos han presentado su moción y aunque pudieran estar de acuerdo con distintos aspectos de la enmienda quieren que se trate y vote la moción que han presentado y como moción aparte la enmienda.

Jon Abril: No están de acuerdo con el tono de

- Jon Abrilek: Ez daude ados mozioaren tonuarekin eta bakarrik alde bateko arrazoiak agertzen direlako.

**Bozketa eginda, hau da emaitza:**  
**Emendakinaren aurka 4 boto (EAE-ANV-koak).**  
**Emendakinaren alde 7 (EA, EAJ-PNV eta Aralarrekoak).**

**Beraz, EA, EAJ-PNV eta Aralarrek aurkeztutako emendakina ONARTU DA, honelako testua izanik:**

“----- Azken asteetan Euskal Herrian izan diren gertaeren aitzinean, gure kezka eta samina agertu nahi dugu Berako Eusko Alkartasunak, Eusko Alderdi Jeltzaleak eta Aralarrek. Batasunako Mahai Nazionalako kideak atxilotzea salatu nahi dugu, batetik, eta berriz ere ETAk atentatuak egiteko hartutako bidea arbuiatzen dugu, tartean hainbat pertsona zauritu dituztenak. Erabaki horiek guztiak Euskal Herritarren gehiengoaren borondatearen kontrakoak dira, eta Euskal Herriaren baketzea eta normalizatzea urrundu baino ez dute egiten. Gauzak horrela, honako hau adierazi nahi dugu:

1. Berako EA, EAJ eta Aralarren iritziz, Baltasar Garzon epailearen aginduz Batasunako mahai nazionalaren atxilotu izana hagitx larria eta antidemokratikoa izateaz gain, ez du batere laguntzen Euskal Herriko normalizazio politikoa eta gizartearen baketzea lortzen.

2. Gure ustez, XXI. mendean eta Europan, estatu demokratiko batek kontu handiz errespetatu behar ditu giza eskubide guztiak, eta horien artean, eskubide politikoak. Horietako bat, biltzearena da eta bertze bat manifestazioa egitearena. Ez du inolako justifikaziorik delitutzat hartzea zenbait pertsona solasteko eta politikaz jarduteko biltzea. Gaur egun, eskubide hauek ez daude bermatuak herritar guztientzat modu berean.

la moción y porque solo aparece una parte.

Sometida a votación, resulta:

4 votos en contra de la enmienda (los de EAE-ANV).

7 votos a favor de la enmienda (los de EA, EAJ-PNV y Aralar).

Por lo que SE APRUEBA la enmienda presentada por EA, EAJ-PNV y Aralar, siendo el texto el siguiente:

“----- Los grupos políticos de Eusko Alkartasuna, Eusko Alderdi Jeltzalea y Aralar en el Ayuntamiento de Bera mostramos nuestra preocupación y sentir ante los hechos acontecidos las últimas semanas en Euskal Herria. Por un lado denunciemos la detención de los miembros de la Mesa Nacional de Batasuna, y por otro, rechazamos que ETA haya vuelto a atentar, hiriendo a varias personas. Estas actuaciones son contrarias al deseo de la mayoría de la ciudadanía vasca, y no hacen más que alejar la pacificación y normalización de Euskal Herria. Por lo tanto, declaramos:

1. Ante la detención de los miembros de la mesa nacional de Batasuna por orden del juez Baltasar Garzón, los grupos de EA, EAJ-PNV y Aralar de Bera manifestamos que se trata de un hecho gravísimo y antidemocrático además de no contribuir a la normalización política y a la pacificación social.

2. A nuestro entender, un estado democrático de derecho en el siglo XXI y en Europa debe ser escrupulosamente respetuoso con todos los derechos humanos, y entre ellos, los derechos políticos, uno de los cuales es el de reunión y otro el de manifestación. No tiene justificación ni es de recibo el calificar como delito el hecho de reunirse determinadas personas para hablar y concertar cuestiones políticas. Estos derechos no están garantizados de la misma manera para el conjunto de la ciudadanía.

**Honen aitzinean, Berako EA, EAJ eta Aralarrek Madrilgo Gobernua eta PSOE kritikatzan ditugu, giza eskubideak eta eskubide politikoak tinkotasunez ez defendatzeagatik.**

**3. Era berean, gure ustean, atxiloketak arrazoitzeko erabili den teoria juridikoa, hau da, legez kanpoko erakunde bateko kide moduan ari direnek delitu egiten dutela sustengatzen duen teoria totalitarioa da, zuzenbide penal modernoaren oinarriak hausten dituena. Entzutegi Nazionalak bultzaturiko teoria antidemokratiko hauek agerian uzten dute erakunde honen salbuespeneko izaera. Entzutegi hau bertan behera uztea eskatzen dugu.**

**4. Atxilotuak aske uztea eskatzen dugu, eta atxilotuei, eta beronen inguru eta familiei elkartasuna erakutsi nahi diegu. Elkartasun mezu hori atentatueta kaltetu eta zauritutakoei ere helarazi nahi diegu. ETArmiak behin betirako utz ditzala eskatzen diogu.**

**5. Euskal Herriaren normalizazioaren eta bakearen aldeko konpromiso irmoa berresten dugu EAK, EAJk eta Aralarrek, eta gainerako alderdiei, herritarren erabakia errespetatuz, normalizazio eta bake bide horien alde lan egitera deitzen ditugu.-----**

#### **4.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

**Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Por todo ello EA, EAJ-PNV y Aralar de Bera critican al Gobierno de Madrid, y al PSOE por su falta de rigor en la defensa de los derechos humanos y de los derechos políticos.

3. Así mismo, señalamos que la teoría jurídica en virtud de la cual las personas que actúan como miembros de un colectivo ilegalizado cometen delito es una teoría no solo totalitaria sino que rompe todos los principios del derecho penal moderno que exige como garantía de las libertades la personalización del delito y la individualización de la responsabilidad. Estas teorías utilizadas por los juzgados centrales de la Audiencia Nacional, que son anticuadas y antidemocráticas, ponen de manifiesto el carácter excepcional y no normalizado de la jurisdicción penal centralizada que es la Audiencia Nacional. Por ello solicitamos la derogación de este juzgado.

4. EA, EAJ-PNV y Aralar expresan su deseo y su firme petición de que todos los detenidos sean puestos de inmediato en libertad y comunica su solidaridad con los detenidos, entornos y familias. Ampliamos esa solidaridad para con las víctimas y heridos en los últimos atentados. Instamos a ETA a que abandone definitivamente las armas.

5. EA, EAJ-PNV y Aralar reiteramos nuestro compromiso en el camino de la normalización y la pacificación de Euskal Herria, e instamos al resto de fuerzas a que trabajen en pro de la normalización y la pacificación, respetando la decisión de la ciudadanía.-----

#### **4.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-**

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

1) Bandoak: B18/2007tik B19/2007ra.

2) Ebazpenak: 2007ko urriaren 15eko 218. ebazpenetik 2007ko azaroaren 6ko 238.era arte.

**Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo absolutua bete izanik, honako gai hau tratatu da:**

##### **5.- “IBARDIN”-go OHIAN LOTEA ESLEITZEA.**

**Ikusirik, “Ibardin” eta “Gaztelu” parajeetako oihan-aprobetxamenduen espedientea.**

**2007ko apirilaren 18an Udal Batzarrak eginiko bileran oihan-aprobetxamendu hauek enkante ireki saltzea eta hau hutsik gelditu ezkererako %10 merkeago bigarren enkantea egitea erabaki zen.**

**Aipatu diren bi enkante egin ondoren hutsik gelditu dira, baina geroztik 2 eskaintza aurkeztu dira, hots:**

**- Embalajes Martínez s.l.-k: bi loteentzako proposamena.**

**- Agrícola Total s.l.-k: 2. lotearentzako proposamena.**

**Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 166.3 artikuluari jarraikiz Nafarroako Gobernuko Landa Garpenerako eta Ingurumenerako Departamentuaren Oihanak Kudeatzeko Atalari bidali zitzaizkion proposamen horiei buruzko behar den txostena egin dezan.**

**Ikusirik, lehen aipatu den txostena aurkeztutako proposamen alde agertzen dela.**

**Ikusirik, joan den azaroaren 8ko Kontratazio Mahaiaren akta, non oihan aprobetxamenduen 1. eta 2. lote Embalajes Mar-**

1) Bandoak: del B18/2007 al B19/2007.

2) Resoluciones: De la resolución nº 218 de 15 de octubre de 2007 a la nº 238 de 6 de noviembre de 2007.

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se trata el siguiente asunto:

##### **5.- ADJUDICACIÓN LOTE FORESTAL DE “IBARDIN”.**

Visto expediente de aprovechamientos forestales en los parajes de “Ibardin” y “Gaztelu”.

El Pleno en sesión celebrada el 18 de abril de 2007 acordó la venta en subasta abierta de los aprovechamientos forestales antes citados y, si esta subasta quedara desierta, realizar una segunda subasta con el 10% de rebaja.

Realizadas las dos subastas indicadas quedaron desiertas pero, posteriormente, se presentaron 2 ofertas, a saber:

- Embalajes Martínez s.l.: propuesta para los dos lotes.

- Agrícola Total s.l.: propuesta para el 2º lote.

De conformidad con lo establecido en el artículo 166.3 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local se remitieron las citadas propuestas a la Sección de Gestión Forestal de Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra para que emitieran el informe correspondiente sobre las mismas.

Visto que dicho informe es favorable a las propuestas presentadas.

Vista el acta de la Mesa de Contratación del pasado 8 de noviembre en la que se acuerda adjudicar provisionalmente los lotes nº 1 y 2 de los aprovechamientos forestales de esta

**tinez s.l. eta Agricola Total s.l. enpresei, hurrenez hurren, behin behinekoz esleitzea erabaki zuen.**

**Kontuan hartuz, Embalajes Martínez s.l. enpresak baldintza administratiboaren 10. baldintzan jarritako dokumentazioa eta aprobetxamenduari dagokion lehenbiziko ordainketa (%25) gaur bertan aurkeztu dituela.**

**Aho batez, ERABAKI DA:**

**1) Ibardingo ohian aprobetxamenduen 1. lotea eskaintako kopuruan, hau da, 195.630 eurotan (BEZ gabe), EMBALAJES MARTINEZ S.L. enpresari esleitzea.**

**2) Esleipen hau, Nafarroako Gobernuak Biodibertsitatea Babesteko Zerbitzuaren baldintza tekniko eta Udalak onartutako baldintza-pleguari jarraikiz izanen da. Baldintza-plegu hauek akordio honekin batera bidaliko zaizkio interesatuari.**

**3) 4. klausularen arabera ohian aprobetxamendua hasi baino lehen esleipen-prezioaren %100aren abala aurkeztu behar duela gogoraraztea.**

**Baina kasu honetan %25a ordainduta dagoenez %75aren abala jartzea nahiko izanen dela adieraztea.**

**4) Erabaki hau Nafarroako Gobernuak Landa Garapenerako eta Ingurumenerako Departamentuaren Oihanak Kudeatzeko Atala eta esleipendunari jakinaraztea.**

**6.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.**

**Jon Abrilek Alkateak sinatutako aholkularitza kontratuari buruz galdetu dio.**

subasta a las empresas Embalajes Martínez s.l. y Agricola Total s.l., respectivamente.

Teniendo en cuenta que la empresa Embalajes Martínez con fecha de hoy ha presentado la documentación exigida en la cláusula 10 del pliego de condiciones administrativas y el primer plazo del pago correspondiente (25%).

Por unanimidad, SE ACUERDA:

1) Adjudicar a EMBALAJES MARTÍNEZ S.L., en la cantidad ofertada de 195.630 euros (sin IVA) el Lote nº 1 de los aprovechamientos forestales en el paraje de Ibardin.

2) Esta adjudicación se hace de acuerdo al pliego de condiciones técnicas del Servicio de Conservación de la Naturaleza del Gobierno de Navarra y al aprobado al efecto por el Ayuntamiento, cuyas copias se adjuntarán a la notificación de este acuerdo.

3) Recordar a la empresa que según la cláusula 4 deberán presentar aval del 100% del precio de licitación antes del inicio del aprovechamiento.

Sin embargo, como en este caso se ha pagado ya el 25% del precio sería suficiente aval del 75% restante.

4) Notificar el presente acuerdo a la empresa adjudicataria y a la Sección de Gestión Forestal del Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente del Gobierno de Navarra.

**6.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.**

Jon Abril pregunta al Alcalde por el contrato de asesoría que ha firmado.

**Alkateak zera erantzun dio: Kontratu urte baterako da eta Alkateari zalantzak argitze-ko, berria dela postuan eta beharrezkoa ikusi dute.**

**Jon Abrilek: Gordeka egin dute eta beste taldeekin eztabaidatu gabe, argitasun gehi-ago behar da.**

**Alkateak: Ez da gordeka egin, faktura iza-zen da eta faktura guztiak Ogasun Batzor-detik pasatzen dira. Beharra sentitu dute eta horregatik egin dute.**

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:25etan.**

El Alcalde le responde que es un contrato para un año y se ha hecho para asesoramiento de Alcaldía, que es nuevo en el cargo y han visto que era necesario.

Jon Abril: Lo han hecho a escondidas y sin contar con los otros grupos, es necesaria más transparencia.

Alcalde: No se ha hecho a escondidas porque luego habrá factura y todas las facturas pasan por la Comisión de Hacienda. Han sentido la necesidad y por eso lo han hecho.

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:25 horas.

**O.E. ALKATEA,  
V.B. EL ALCALDE**